

2. Bileraren akta.

<u>GAIA:</u> Jantokia	<u>NOIZ:</u> Abenduak 12, Mogel Isasin (areto nagusian)	<u>PARTE-HARTZAILEAK:</u> 15 lagun
------------------------------	--	--

1.- KEZKAK: Lagun batek bere kezka azaldu du gaur egungo jantokiari buruz. Hau da, proiektu berri honekin bat egiten duela esan du baina bitartean, gaur egungo ereduarekin zerbait egin behar dela adierazi digu. Bere esanetan, egunero janari asko botatzen da zaborrera eta arazo honi modu baten edo bestean aurre egin behar diogula planteatu du. Gurasoen parte-hartzea ezinbestekoa dela aipatu du.

2.- LAN-TALDEAK: Bi lan-talde sortu dira:

3.1.- Informazioa bildu eta zabalduko duen taldea.

Alde batetik gu geu elikatzeko eta bai, beste gurasoei zabaltzen joateko. Horretarako, adibide bat aipatzearen, jantoki autogestionatua garatu duten beste eskolekin harremanetan jarriko dira. (5-6 lagun elkartuko dira)

3.2.- Alde ekonomikoa aztertuko duen taldea:

Zenbakiak egingo duen taldea. Gure proiektua, ekonomikoki, bideragarria den edo ez jakiteko. (5-6 lagun elkartuko dira)

3.- HURRENGO BILERA:

Noiz? Urtarrilak 23, arratsaldeko 19:00retan

Non? Mogel Isasin (areto nagusian)

